

GOBERNU BATZARRA

2017 05 29

Alkatea: Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hogeita bederatzian, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

Beh. Beh. Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso.

1.- Aurreko akta onartzea.
2.- Landa Auzoak 2017ko dirulaguntza: Alur Txiki auzo elkarte-Urkizu.
3.- 28/2017 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko maiatzaren 22an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Landa Auzoak 2017ko dirulaguntza: Alur Txiki auzo elkarte-Urkizu.

Tolosako Udalak eta Urkizu eta auzotxikia auzoetako Alurtxiki auzo elkartearen arteko hitzarmena sinatu zen 2014ko irailaren 23an, auzoaren garapeneko helburu zerrenda gauzatzeko.

Honen baitan, gizarte, kultur, kirol eta auzoko jaien jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jarri du Udalak 2017ko Udal aurrekontuetan.

1100 481.01 17200

Urkizu-Auzotxikia

6.000 euro

Alur Txiki Elkarteak, 2017ko maiatzaren 24an, ondorengo dokumentazioa aurkeztu du, hitzarmenean adierazten den moduan.

- 2017ko ekintzak
- 2017ko aurrekontua
- Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Ingurumen teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Urkizuko Alur Txiki Elkarteari dirulaguntza ematea gizarte, kirol eta auzoko jaien jardueretarako: Zenbatekoa, 6.000 €.

BIGARRENA.- Dirulaguntzaren %50 aurreratzea.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza zuritzeko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkio Udalari.

- Urteko ekintzen behin betiko memoria
- Gastu eeta diru-sarreren likidazioa.
- Fakturak
- Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea elkarteari, Kontuhartzaitzari eta Ingurumen departamentuari.

3.- 28/2017 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **28/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **95.526,75** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **28/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA